

Euskal AEko industria % 2,0 hazi zen 2002ko ekitaldian.

Industriako enpleguak bilakaera positiboa izan zuen, eta urte horretan % 1,2 gehitu zen.

2002an, Euskal AEko industriaren sektoreak egiaztatu egin zituen ekonomiaren moteltzea adierazten zuten aurreko ekitaldiko zeinuak, eta, Eustaten datuen arabera, sektore horren hazundearen tasa nominala % 2,0 gehitu zen.

Euskal AEko industriak 1997-2000 laurtekoan izan zituen hazkunde-erritmo handiak (balio nominaletan, urteko batez besteko hazkunde % 9,0 izan zen) moteldu egin dira 2001eko eta 2002ko ekitaldietan. Hazkunde tasak positiboak izan ziren ekitaldi horietan ere, baina txikiagoak. Hala, 2001ean % 3,6 izan zen, eta 2002an, % 2,0.

Balioa: Mila €

Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE.	Industria		
	2001	2002	Δ %
Uneko prezioak			
Establezimenduen kopurua	15.061	14.977	-0,6
Landun-kopurua	243.198	246.063	1,2
Balio Erantsi Gordina faktore-kostutan	12.748.266	13.008.214	2,0
Ustiapen Soberakin Gordina	5.678.879	5.610.202	-1,2
Egindako Inbertsioak	3.168.510	3.211.667	1,4
Amortizazioak	1.898.949	1.994.159	5,0
Negozio-kopurua	41.481.465	42.393.031	2,2
Bestelako sarrerak	2.169.126	2.253.415	3,9
Ustiapen-kontsumoak	22.878.676	23.445.870	2,5
Kanpoko zerbitzuak	5.801.879	5.937.657	2,3
Pertsonal-gastuak	7.069.387	7.398.012	4,6
Bestelako gastuak	2.168.882	1.940.165	-10,5
Emaitzak zergak ordaindu aurretik	3.136.674	3.213.405	2,4
Cash Flow-a	5.035.623	5.207.564	3,4

Iturria: EUSTAT

Industriako enpleguaren bilakaerak bat egin du industriako produktuarekin. Industrian, 40.000 enplegu garbi sortu ziren lehen aipaturiko hedapen-aldian (1997-2000), eta urteko batez besteko hazkunde % 5 izan zen.

2001ean, aurreko dinamismoa ahuldu egin zen, baina, hala ere, urteko hazkunde-tasa % 3,0 izan zen, eta 7.000 enplegu garbi sortu ziren.

2002an, moteltzearen bigarren urtean, industriaren sektoreak enplegua sortzen jarraitu zuen, 2001. urtean baino ia 3.000 enplegu gehiago, eta, beraz, % 1,2ko hazkunde izan zen. 1994an, industriako enplegua 192.274 lagunekoa zen, eta 2002an, zortzi urte geroago, 246.663 langile ziren, 54.000 eta apur bat enplegu gehiago.

Hauek dira, laburbilduta, EUSTATEk landutako industria-kontuek eskaintzen dituzten emaitzarik nabarmenenetariko batzuk:

- Industria-balio erantsiak % 2,0ko goratze nominala izan du 2002an. Tasa positiboa da, baina txikiagoa da 2001. urtean izandakoa (% 3,6) baino, eta batez ere aurreko urteetan izandakoak baino.
- Pisu handieneko sektoreen artean, urteko hazkunderik handienak, balio erantsian, honako adar hauek izan dituzte: *ez-metalezko meak* (% 35,9), *azken kimika* (% 28,7), *ingeniaritza mekanikoa* (% 13,9), *zurgintza* (% 13,8), *ogia eta errotaritza* (% 11,9) eta *forja eta estanpazioa* (% 10,8) adarrek, alegia. Aitzitik, atzerakada handieneko urteko tasak adar hauetan gertatu dira: *petrolioaren fintzea* (% -48,9), *ez-burdinazko metalgintza* (% -28,3), *material elektronikoa* (% -11,2) eta *makina-tresna* (% -9,3) adarretan.
- Industriako enplegua % 1,2an hazi da, eta 2002an baino ia 3.000 lanpostu gehiago sortu ditu.
- 2002an lanpostu gehien sortu duten sektoreak honakoak izan dira, ehuneko-baliotik: *Birziklapena* (% 23,3), *Ingeniaritza mekanikoa* (% 7,3), *Forja eta estanpazioa* (% 6,1), *Esnekien industriak* (% 5,6) eta *Ogia eta errotaritza* (% 4,4). Lanpostuak galdu dituzten adarren artean, honako hauek daude: *Metalezko meak* (% -11,8), *Material elektronikoa* (% -9,2), *Arrain kontserbak* (% -5,7) eta *Ehungintza* (% 5,1).
- Industria-sektoreko inbertsioak % 1,4 hazi dira 2002an; hala ere, urtebete lehenago izandako tasatik (% 27) urrun geratu da.
- Ibilgetu erabilia birjartzeko amortizazioak % 5,0 hazi dira 2002ko ekitaldian.
- Ekitaldiko inbertsio garbiak, hau da, egindako inbertsioei amortizazioak kenduta geratzen dena, 1.200 milioi euro izan dira, urtebete lehenago izandako datuetatik hurbil.
- Ustiapeneko soberakin gordinak atzerakada izan du bigarren urtez jarraian, 2001ean % -0,6, eta 2002an, % -1,2.
- Langileria-kostuak, aldiz, % 4,6 hazi dira 2002an; 2001ean baino gutxiago, orduan % 7,3 egin baitzuten gora.
- Zerga-aurreko emaitzek 2,4 puntu irabazi dituzte, 2001. urtean izandako emaitzekin alderatuz gero; hala ere, 2000ko zifretara ez da oraindik iristen.
- *Cash flow*-a % 3,4 hazi da aurreko urtearen aldean. Horrenbestez, 2000. urtekoaren maila berera heldu da ia, amortizazioetarako zuzkiduretara bideratutako baliabideei esker.

Probintziei begira, 2002. urteko hazkunde-tasa onenak Gipuzkoako eta Arabako industria-sektoreetan izan direla ikus daiteke; % 2,8 eta % 2,7 hazi dira, hurrenez hurren. Bizkaiko industriaren urteko bilakaera (% 1) Euskal AE osoko bilakaeraren (% 2) erdibidean gelditu da.

Eraikuntza-sektoreak % 10,3-ko hazkunde nominala izan zuen 2002an.

Euskal AEko eraikuntza-sektorea % 10,3 hazi da (2001ean %16,6). Sektorerik handienak langile-kopuruak ere bilakaera positiboa izan du, eta hazkunde-tasa % 7,0koa izan da 2002an. Ekitaldi horretan, beraz, 5.300 lanpostu garbi sortu ziren. Hona hemen nabarmendu beharreko beste emaitza batzuk:

- Ustiapeneko soberakin gordinak % 5,3 egin du gora, eta langileria-kostuak, % 12,9.
- Zerga-aurreko emaitzek behera egin dute zertxobait (% -0,3), baina *cash flow*-ak % 2,7 egin du gora.

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE.	Balioa: Mila €		
	Eraikuntza		
	2001	2002	Δ %
Unekoko prezioak			
Establezimenduen kopurua	21.942	22.691	3,4
Landun-kopurua	75.790	81.118	7,0
Balio Erantsi Gordina faktore-kostutan	2.923.177	3.223.562	10,3
Ustiapen Soberakin Gordina	1.002.472	1.055.865	5,3
Egindako Inbertsioak	197.289	204.052	3,4
Amortizazioak	135.329	159.253	17,7
Negozio-kopurua	9.476.311	10.341.805	9,1
Bestelako sarrerak	604.515	878.514	45,3
Ustiapen-kontsumoak	5.929.877	6.563.835	10,7
Kanpoko zerbitzuak	1.015.234	1.159.943	14,3
Pertsonal-gastuak	1.920.705	2.167.697	12,9
Bestelako gastuak	247.234	296.591	20,0
Emaitzak zergak ordaindu aurretik	671.544	669.375	-0,3
Cash Flow-a	806.873	828.628	2,7

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tlf: +34-945 017 509 Fax: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es